

[Eusk/Cast] Coronavirus, cárcel y represión social

MOVIMIENTO POR LA AMNISTIA Y CONTRA LA REPRESIÓN :: 22/03/2020

Vemos con preocupación cómo utilizando la doctrina del shock y del miedo están convirtiendo a personas civiles en chivatas de la policía

Euskera

Agiri honen bitartez Amnistiaaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimenduak koronabirusak kartzeletan zein kalean eragindako egoera errepresiboen inguruko irakurketa plazaratzea dauka helburu. Bi zatitan banatuko dugu irakurketa hau, jakinda biak estu loturik daudela: kartzela eta kalea.

Kartzela.

Ohikoa den moduan, kasu honetan ere kartzela barruan dauden pertsonak are eta egoera okerragoan daude edozein zaitasunaren aurrean. Mundutik nahiko isolatuta daude egunerokoan, eta ezarritako neurriekin isolatuago daude orain eta, ondorioz, babesgabetasun egoera handiago batean. Bai Espaniar zein Frantziar Estatuetan bisitak debekatu dituzte.

Espaniar Estatuko kartzeletan dauden presoei (BOE, martxoaren 15eko INT/227/2020) dei gehiago onartu dizkiete telefonoz kontaktua mantendu dezaten, baina bestetik abokatuen bisitak bertan behera utzi dituzte, hauekiko komunikazioak dei telefonikoetara murritzuz, presoari honek dakarkion babesgabetasunarekin. Kartzelak, berez, nahiko leku ilunak dira presoenganako gehiegikeriak aurrera eramateko orduan, eta egoera honek presoen kontrako erasoei erraztasun bat gehiago ematen dio. Egunkaririk ezingo dute jaso eta posta, oro har, motelduta dago Correos-en egoeragatik. Arropa paketerik ezin dute jaso.

Frantziar Estatuko kartzeletan dauden presoei dagokienez, 20 euro kargatuko dizkiete telefonoan martxoan, eta 40 apirilean, etxekoekin kontaktua izan dezaketela bermatzeko. Era berean telebisten alokairua doanekoa izango da tarte honetan. Asistentzia juridikoari dagokionez, ordea, abokatuak kartzelara joan ahalko lirateke soilik larritasun handiko kasuetan, nahiz eta ez den zehazten zeintzuk diren kasu horiek. La Poste-ek ez du bermatzen gutunak helaraztea eta egunkaririk ere ez dute jasoko. Arropa paketerik ezin dute jaso.

Ikusten dugunez, bai Espaniako zein Frantziako kartzeletan asistentzia eskubidea ukatzen ari zaizkie presoei, juridikoa zein medikoa. Ezinbestekoak diren beste sektore batzuk martxan mantentzen dituzten bitartean, presoei oinarritzkoena ukatzen ari zaizkie berriz ere. Segurtasunaren aitzakiapean, eskubideen anulazioa gauzatzen ari dira. Azpimarragarria da Sevilla II kartzelako kasua, non hilabeteak diren medikurik ez dutela. Bere lekuan botikak ematen dizkien erizain bat doa.

Beste alde batetik, frantziar eta espaniar kartzelak masifikatuta daude, eta batzuen zein besteen legediaren arabera ez da batere zaila preso bukatzea. Beste garai batean isun

batekin zigortzen zituzten kasu asko, kartzelaz zigortzen dituzte gaur. Alarma Egoera dekretatu duten arren, inongo momentuan ez dute planteatu preso eriak, adinduak, prebentiboak eta kondenak betetzean dituztenak etxera bidaltzea. Ez dute planteatu indulturik ematea, krisi honen aurrean inoren osasuna ez dutela lehenesten erakutsiz. Lehentasuna zigortzea da.

Egoera honetan gogorarazi behar dugu kartzela barruan ditugun burkideak askatasunaren alde borroka egiteagatik daudela preso. Salbuespen Egoera honetan ere haien baloreak, borroka eta amnistia osoa defendatzea dagokigu. Inoiz baino isolatuago mantentzen dituzten honetan, ahalegindu gaitezen haien eredu ahalik eta gehien zabaltzen, haien askatasuna aldarrikatzen eta ondorio gisa kartzela izan zuen haien borroka indartzen.

Kalea.

Kalea diogu, baina benetan kalea ere lapurtu digute. Larrialdi sanitario baten aitzakiapen gure eskubide guztiak lurperatu dituzte. Etxean konfinatuta gauzkate edo lanera segurtasun neurrik gabe joaten behartzen gaituzte. Sistema kapitalistaren esentzia basatia agerian gelditzen da. Ez da gizateria babesteko gai, eta ez hori bakarrik, baizik eta sistema hori dela gizateria galbidera daramana. Jendea bitarteko medikoen faltagatik hiltzen ari da ospitaleetan, pandemia neutralizatzeko inolako gaitasunik ez dute erakutsi munduko estatu kapitalistek, baina bai ordea errepresio makinaria osoa neurrigabe erabiltzeko.

Armadak kalera atera eta Euskal Herria, muga faltsuez bitan zatitzeaz gain, militarki okupatu dute. Okupazio indarrak Euskal Herrian aspaldi dauden arren, indar erakustaldia egiten ari dira orain. Gernikako Estatutuaren eta Nafarroako Foru Hobekuntzaren iruzurrik agerian gelditu dira, izan ere Hego Euskal Herriko instituzio administratibo guztiak Espainiako Gobernuaren menpe daudela ebidentzian gelditu baita.

Kezkaz ikusten dugu zelan shock eta beldurraren doktrina baliatuta pertsona zibilak poliziaren salatari bihurtzen dituzten, zelan auzokideek, langileek, elkar zelatzen eta kontrolatzen duten, eta zelan oligarkiak ondo neurtutako panorama laboral, ekonomiko eta sozial gordin honen aurrean errudunei etorkizuneko baldintzak erabakitzeko aukera ematen dieten inolako kontrajarrerarik gabe.

Polizia, bitartean, txeke zuria jaso du errepresioa aplikatzeko. Kontrol, isun eta atxiloketez gain, gehiegikerien adibide ezberdinak ikusi ahal izan ditugu Euskal Herriko puntu ezberdinetan. Ez da zerbait berria eta Salbuespen Egoera ezarri aurretik, Portugaleteko Udaltzaingoak bi pertsona tirokatu eta erail zituen Barakaldoko Errekatxo auzoan autoz egindako jarraipen polizial bati bukaera emateko. Orain, baina, gustura dabilta kolore guztietako poliziak legea haien direla frogatu nahian.

Gizarte sumisoa, akritikoa, indartsuarekin otzana eta ahularekin oldarkorra sortzeko bitartekoia izaten ari da Salbuespen Egoera hau. Antolakuntza politikorako eta adierazpen eskubideak bertan behera utzi dituzte. Horren ordez pentsamendu unanime likidoa sortu dute mikrobio baten aurka, honek arrazoitzeko gaitasuna balu bezala: “denok koronabirusaren aurka”. Modu honetan, klase sozialik gabeko egoera bat aurkezten digute, hain zuzen ere, konfinamendua bukatu eta gero ofentsiba kapitalista berriaren aurrean klase-elkartasuna eta klase-borroka desagerrazteko.

Egoera larri honetan ere, eta horrexegatik batez ere, Amnistiaaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimenduak antolakuntza eta borrokarako deia egiten jarraituko du.

Euskal Herria, 2020ko martxoaren 21a.

Amnistiaaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimendua.

Castellano

Por medio de este comunicado el Movimiento Pro Amnistía y Contra la Represión tiene como objetivo hacer pública su lectura sobre las situaciones represivas en las cárceles y la calle, devenidas en este caso del coronavirus. Esta lectura la dividiremos en dos partes: cárcel y calle.

Cárcel.

Como es habitual, también en este caso las personas que se encuentran en prisión están en peor situación ante cualquier dificultad. En el día a día están bastante aislados, y con las medidas impuestas ahora aún lo están más y, por ello, en una situación de mayor vulnerabilidad. Tanto en el Estado español como en el francés han prohibido las visitas.

A los presxs que se encuentran en las cárceles del Estado español (BOE, INT/227/2020 del 15 de marzo) les han aprobado un incremento de llamadas para que mantengan contacto telefónico, pero por otro lado han anulado las visitas con los abogados, restringiendo las comunicaciones con estos a llamadas telefónicas, con la indefensión que esto acarrea. Las cárceles, de por sí, son lugares bastante oscuros para poder llevar a cabo abusos contra los presxs, y esta situación facilita aún más los ataques contra ellxs. No podrán recibir periódicos y los envíos postales, en general, van con retraso por la situación de Correos. No pueden recibir paquetes de ropa.

En lo que respecta a los presxs que están en cárceles del Estado francés, les cargarán en el teléfono 20 euros en marzo, y 40 en abril, para garantizar que pueden mantener el contacto con los de casa. Igualmente, durante este periodo no tendrán que pagar el alquiler de la televisión. Sin embargo, en lo respectivo a la asistencia jurídica, los abogados podrán acudir a la cárcel solo en casos de gran gravedad, aunque no se concreta cuáles son esos casos. La Poste no garantiza hacer llegar las cartas y tampoco podrán recibir periódicos. No pueden recibir paquetes de ropa.

Como vemos, tanto en las cárceles españolas como en las francesas se está vulnerando a los presxs el derecho a la asistencia, a la jurídica y a la médica. Mientras mantienen en marcha otros sectores que no son imprescindibles, a los presxs les están negando otra vez lo más básico. Bajo la excusa de la seguridad, están anulando sus derechos. Es destacable el caso de Sevilla II, donde llevan meses sin médico. En su lugar acude una enfermera que les proporciona medicamentos.

Por otra parte, las cárceles españolas están masificadas, y según las legislaciones de ambos estados, no es nada difícil acabar en prisión. Muchos de los casos que antes se castigaban con multas, ahora se castigan con cárcel. A pesar de que han decretado el Estado de

Alarma, en ningún momento se han planteado mandar a casa a lxs presxs enfermxs, a lxs ancianxs, a lxs preventivxs y a lxs que están a punto de cumplir la condena. No se han planteado otorgar indultos, demostrando que en esta crisis no priorizan la salud de nadie. La prioridad es castigar.

En esta situación debemos recordar que los compañeros y compañeras de lucha que tenemos dentro de la cárcel están presxs por luchar por la libertad. También en este Estado de Excepción nos corresponde defender sus valores, su lucha y la amnistía total. En este momento en el que lxs mantienen más aisladxs que nunca, esforcémonos en extender al máximo su ejemplo, en reivindicar su libertad y en reforzar esa lucha suya que tuvo la cárcel como consecuencia.

Calle.

Hablamos de la calle, pero en realidad también eso nos han robado. Bajo la excusa de una emergencia sanitaria han enterrado todos nuestros derechos. Nos tienen confinadxs en casa o nos obligan a ir a trabajar sin medidas de seguridad. La esencia salvaje del capitalismo queda al descubierto. No es capaz de proteger a la humanidad, y no solo eso, sino que ese sistema es el que lleva a la humanidad a la perdición. La gente está muriendo en los hospitales por falta de instrumentos médicos, los Estados capitalistas del mundo no han demostrado ninguna capacidad para neutralizar la pandemia pero sí, en cambio, para utilizar sin límite toda su maquinaria represiva.

Han sacado los ejércitos a la calle y, además de dividir con falsas fronteras Euskal Herria, la han ocupado militarmente. Aunque las fuerzas de ocupación se encuentran en Euskal Herria desde hace tiempo, ahora están haciendo una exhibición de fuerza. Los fraudes del Estatuto de Gernika y el Amejoramiento Foral de Nafarroa han quedado al descubierto, ya que se ha evidenciado que todas las instituciones administrativas de Hego Euskal Herria están al servicio del Gobierno de España.

Vemos con preocupación cómo utilizando la doctrina del shock y del miedo están convirtiendo a personas civiles en chivatas de la policía, cómo lxs vecinxs, lxs trabajadorxs, se espían y controlan lxs unxs a lxs otrxs, y cómo ante esta cruda situación laboral, económica y social bien medida por la oligarquía, dan la opción de decidir a los culpables las condiciones del futuro, sin contraposición alguna.

La policía, mientras tanto, ha recibido un cheque en blanco para aplicar la represión. Además de los controles, las multas y las detenciones, hemos podido ver ejemplos de abusos en distintos puntos de Euskal Herria. No es algo nuevo y antes de imponer el Estado de Excepción, la Policía Municipal de Portugalete disparó y asesinó a dos personas en el barrio de El Regato de Barakaldo para dar fin a una persecución policial en coche. Y ahora, los las policías de todos los colores se encuentran a gusto intentando demostrar que ellos son la ley.

Este Estado de Excepción está siendo una herramienta para crear una sociedad sumisa, acrítica, dócil con el fuerte y agresiva con el débil. Han suspendido los derechos a organizarse y de expresión. En vez de eso han creado un pensamiento unánime líquido contra un microbio, como si este tuviera capacidad de razonar: "todxs contra el

coronavirus". De este modo, nos presentan una situación sin clases sociales, precisamente para, terminado el confinamiento, hacer desaparecer la solidaridad y la lucha de clase ante la nueva ofensiva capitalista.

También en esta situación, y por ella sobre todo, el Movimiento Pro Amnistía y Contra la Represión seguirá llamando a la organización y la lucha.

En Euskal Herria, a 21 de marzo de 2020.

Movimiento Pro Amnistía y Contra la Represión.

<https://eh.lahaine.org/eusk-cast>